

KOSTUEN EGITURA

Proiektuaren hasieran hainbat aurreko inbertsioak egin behar izango ditugu, kokapena gauza garrantzitsua da. Barrio Lanzas Agudasen dagoen etxe bat erosiko dugu, 245.000 eurotan izango duguna, honek lur eremu nahiko handia duena animaliak eta baratzeak izateko. Etxe honen barruan erreformak egin behar izango ditugu barrutik gehienez, leku egokitu beharko dugu logeletarako lekua egin eta sukaldea eta jantokiak jarri eta honek 156.00 euro inguruko kostua izan ditzake.



Lehenik, kostuak zuzenak zein zaharkakoak dira. Alde batetik, kostu zuzenak ditugu eta hurrengoak dira:

- Elikagaiak eta edariak: egoiliarrei emandako diruaren kostua da, kostua 5.000 eurokoa izango da.
- Zuzeneko arretako langileen soldata: 1.500 euro izango da egoitzako langile guztiek kobratuko duten soldata, garbiketa empresan lan egiten duen jendea aldentuta utzita.
- Material medikoa: egoiliarren tratamenduan erabiliko ditugun medikamentuak, bendak eta beharrezkoak behar diren elementu gehiago, honen kostua 5.000 eurokoa izango da eta horren barruan botikina eta behar diren elementu guztiak egongo dira.
- Oheko arropa: oheen arropak, toailak eta garbiketa pertsonalerako behar diren elementuak. Honen kostua bakoitzak ordainduko du, hau da, eskaera bat egingo da eta horrekin pertsona bakoitzeko gauzak erosiko dira. Gainera, zerbait behar baldin badute familiarekin hitz egin ahalko lukete eskaera bat egiteko.

Kontzeptua	Tarte Estimatu (€)
Hileko Soldata	11.600 € - 15.300 €
Etxebizitza Segurua	33 € - 58 € (banatuta)
Elektrizitatea	400 € - 700 €
Ura	150 € - 300 €
Gas	200 € - 400 €
Internet eta telefonoa	80 € - 150 €
Mantentze-lanak (legezko egoitza)	300 € - 600 €
IBI (banatuta)	83 € - 250 €
Lizentziak eta baimenak	150 € - 300 €
Egindako berrikuspenak	100 € - 200 €
Hileko gastu finko guztira	13.243 € - 19.258 €

Beste aldetik, zeharkako kostuak ditugu eta hurrengoak izango dira:

- Eraikinaren mantentze-lanak: egoitzan zerbait behar izanez gero, hau da, zerbait berritzeko edo zerbait hobetzeko kostuak dira. Horretarako 50.000 izango ditugu.

- Aseguruak: aseguru orokorren kostuak, langileen asegurua, eraikinarena, bezeroena...

Lehenik, kostu guzti hauek urtero dira. Erantzukizun zibileko asegurua 1.000 eta 5.000 euro inguru, jabetza Asegurua (Kalte Materialen Asegurua) 2.000 eta 8.000 euro inguru, Langileen istripu-asegurua 1.000 eta 3.000 euro artean, Egoiliarrentzako Osasun Asegurua 1.500 eta 7.500 euro inguru eta azkenik, Jarduerak eteteko asegurua 1.000 eta 3.000 euro artean.

Kontzeptua	Tarte Estimatu (€)
Lehengaiak edo inbentarioa	600 € - 1.200 €
Langile bitartekoak	200 € - 500 €
Marketina eta publizitatea	200 € - 500 €
Garraioa eta logistika (irteerak)	2.400 € - 4.800 €
Salmenten komisioak	50 € - 150 €
Ekoizpen gastuak aldakorrak	70 € - 150 €
Proiektu puntualekin lotutako gastuak	100 € - 300 €
Hileko gastu aldakorrak guztira	3.620 € - 7.600 €

Kontzeptua	Tarte Estimatu (€)
Gastu Finko Guztira	13.243 € - 19.258 €
Gastu Aldakorrak Guztira	3.620 € - 7.600 €
Gastu Orokorrak Guztira	16.863 € - 26.858 €

Ingurumen kostuak hurrengoak izango dira: lehenik, plaka solarrak, horrela karbono-aztarna murrizten da, gainera, eguzki argiarekin ere behar batzuk asetzen ditugu, adibidez, argia edo berokuntza elektrikoaren erabilera. 16 plaka jartzea 2.900ko kostua du, 35 plaka jarriko ditugu, orduan, hau 6.343,75ko kostu totala izango da.

Hari beretik, koste sozialak hango dauden jendearen ongizatean oinarrituko dira, animaliekin eta baratzean egindako jardueretan gehien bat. Gainera, lanpostuak osrtzen direnez, jende gehiagok izango du aukera lan egiteko: laguntzaileak, garbitzaileak,...